

❖ **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Enpresak gure bezeroekin duen harremana oso garrantzitsua izango da, pertsonala izanik.

Hasteko, lokal bat alokatuko dugu, bertan gure zerbitzuak eta produktuak eskaini ahal izateko.

Bestalde, gure web-orrialdean kafetegia beteta dagoen ala tokia dagoen ikusi ahal izango dute bezeroek, erreserbak egiteaz gainera, talde handia izanez gero.

Gainera, honako ekintza hauek egingo ditugu bezeroa gurekin lotuta egon dadin:

- Bezero batek gosari menua hamar aldiz eskatzerakoan, hamargarrenean erdia ordainduko du bakarrik.
- Instagram bidez hilabetean behin bi lagunentzako gosaria zozketatuko dugu.